

"GUERNICA" GERNIKARA

1937ko maiatzetik ekainera bitartean, Pablo Picasso margolari eta artistak "Guernica" margolana sortu zuen. Lan honek salatzen du Condor nazien Legioak, Francoren agindupean, Gernikaren kontra egindako bonbardaketa eta sarraskia. Gernika, gainera, euskal herritarren gune kuttun eta esanguratsuenetakoa zen.

Aurten 80 urte betetzen dira, bai bonbardaketatik, bai honen aurkako garraxi artistikoa sortu zenetik. Urteurren hau, Gernika zein euskal herritarren beste eskaera eta garraxi berrak zabaltzeko ere une egokia ikusten dugu: "Guernica" margolana Gernikan kokatu dadi behin betikoz.

Margolana 1937an sortu zuen Picassok eta Parisko Erakusketa Unibertsalean kokatu zuten. Harrez geroztik mundu osoan ezagun egin da, giza eskubideen zapalkuntza gerraren eta herritarren aurkako jazarpena ozenki salatzen duelako.

Aipatutako artelanak ez du zentzurik Gernikari eta bere historiari lotuta ez baldin badago, hura izan baitzen margolari ezaguna gertatuaren izugarrikeria salatza erama zuena. Horren jakitun, Gernikak eta Euskal Herriak behin baino gehiagotan aldarrikatu izan dute aipatutako margolana, Madrilgo Reina Sofia Museoa egon ordez, Gernikan bertan egotea dela egokia.

Behin baino gehiagotan eskatu arren, Madrilgo Gobernuak, garraio eta mantentze arrazoi teknikoak aitzakia hartuta, "Guernica" bere etxera ekartzera ukatu dute. Egun garraio eta mantentzeko beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzeko arazorik ez dute euskal instituzioek eta argudio hori, beraz, ez da sinesgarria. Berriz ere, Madrilgo Gobernuaren interes ekonomiko zein politikoak daude "Guernica" Euskal Herrira ez ekartzeko arrazoi nagusien artean.

Sufrimendu guztien aitortza egingo duen oroimen historikoa eraikitzea ezinbestekoa den garai honetan, margolan honek duen sinbolismoa biderkatu egingo litzateke Gernika herrian balego. "Guernica"-k ezinbestean Gernikan egon behar duela aldarrikatu nahi dugu. Ondorioz, honako mozio hau aurkezten dugu Hernaniko Osoko Udal Batzarrean, bertan eztabaidatu eta onartu dadin.

1.- Udal honek adierazten du Gernika dela Picasso-ren "Guernica" margolanaren kokapenik egokiena. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, "Guernica" Gernikara ekartzeko eskaera formala egiten dio a Gobernuari eta Kultura Ministerioari.

2.- Udal honek Eusko Jaurlaritzari dei egiten dio Picassoren margolana Gernikan kokatu ahal izateko beharrezkoak diren urrats instituzionalak eman ditzan. Halaber, margolan hori Gernikan kokatzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta egokitzapen lanetan laguntzeko ere.

3.- Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaltzea nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.

4.- Udal honek erabaki honen berri emango die Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernuari eta Kultura Ministerioari.